

BIZITEGI-ERAIKINEI ETA IRABAZASMORIK GABEKO ELKARTEEN ERAIKINEI LOTUTAKO ARKITEKTURA-OZTOPOAK KENTZEKO OBRAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK

AURKIBIDEA / EDUKIA

1. ARTIKULUA. XEDEA	2
2. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA	2
3. ARTIKULUA. ERAIKINAK: BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK	2
4. ARTIKULUA. MUGIKORTASUN URRIKO PERTSONAK.....	3
5. ARTIKULUA. ONURADUNAK: NORK ESKA DEZAKEEN DIRULAGUNTZA	3
6. ARTIKULUA. ONURADUNAK: BETEBEHARRAK	3
7. ARTIKULUA. AURREKONTU-ZUZKIDURA	3
8. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN JARDUKETAK, ETA LAGUNTZA EKONOMIKOEN ZENBATEKOA	4
9. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEN DIREN GASTUAK	6
10. ARTIKULUA.- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN OBREK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK	6
11. ARTIKULUA. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN	6
12. ARTIKULUA. ESKABIDEAK. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.	6
13. ARTIKULUA. ESKABIDEAK. AURKEZTEKO MODUA ETA EPEAK.....	7
14. ARTIKULUA. IZAPIDETZEA ETA EBAZPENA	8
15. ARTIKULUA. LAGUNTZA ORDAINTEA	9
16. ARTIKULUA. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA	9

1. ARTIKULUA. XEDEA

1.1.- Deialdi honen xedea da bizitegi-eraikinetako arkitektura-oztopoak kentzeko lanak finantzatzea: bai eraikin horien barrualdean dauden elementu komunei eragiten dietenak, bai atarira bertara sartzeko dauden kanpoaldeko oztopoak (eskailera-mailak, esaterako), bai igogailua jartzeko lanak —halakorik ez dagoenean—.

Era berean, deialdiaren xedea izango da bizitegi-eraikinen inguruetan lehendik dauden erabilera publiko zein pribatuko eta titulartasun pribatuko **kanpo urbanizazioen eraberritze-obrak** finantzatzeko dirulaguntzak ematea, baldin eta obra horiek arkitektura-oztopoak kentzea badakarte.

1.2.- Gainera, irabazasmorik gabeko elkarreentzako dirulaguntzak sartuko dira deialdi honetan, euren jarduera sozialak egiteko erabiltzen dituzten higiezinetan arkitekturako oztopoak kentzeko egiten dituzten obrak egiten laguntzeko.

2.- Deialdi honetatik **kanpo geratzen dira** SURBISAREN jarduera-eremuko eraikinetan egiten diren esku-hartzeak (Zazpi Kaleak, Bilbo Zaharra, Trenbideko Langileen auzoa, Gurutze auzoa, Olabeaga, Zazpilanda, Iralako eremu hondatuak eta Irala historikoa) eta beste auzo batzuetakoak, deialdiaren indarraldian esku hartzea haietara zabalduko balitz.

2. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Deialdi honetako dirulaguntzak arau hauen menpe daude: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 38/2003 Lege Orokorra, eta lege hori garatzeko uztailaren 887/2006 Errege Dekretu bidez onetsitako Erregelamendua; eta Bilboko Udalak eta zuzenbide publikoko bere entitate eta organismoek ematen dituzten dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak, Udalbatzaren 2016ko ekainaren ordenantza orokorraren bidez onetsiak —Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2016ko uztailaren alean (138. zenbakian)—.

3 ARTIKULUA. ERAIKINAK: Bizitegi-eraikinek bete behar dituzten baldintzak

1.- Orokorrean, arkitektura-oztopoak kentzeko dirulaguntzak jaso ditzaketen etxebizitza-eraikinek baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Eraikinaren erabilera nagusia bizitegia izatea.
- b) Higiezinan bizitegi-erabilerak ez direnak badaude, erabilera horiek, gehienez ere, eraikitako azaleraren % 50 izan ahalko dira, beheko solairuak eta sotoak kenduta (horrelakorik egonez gero).
- c) Etxeak, gutxienez, hamar (10) urte izatea.
- d) Eraikinaren altuera osoa lau (4) solairukoa izatea, gutxienez, beheko solairua barne.

2.- **Eraikinen Ikuskapen Teknikoa:** 2.- 50 urtetik gorako eraikina bada, laguntza eskatu aurretik, Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren Txostena aurkeztu beharko da, Eusko Jaurlaritzak EITak kudeatzeko eta erregistratzeko gaitutako plataformaren bidez. Hauxe da bertara sartzeko esteka: <https://www.euskadi.eus/euskoregite>

Hala ere, jarduketa igogailua jartzea bada, Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren Txostena aurkeztu beharko da, eraikinaren antzinatasuna edozein dela ere.

Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren Txostena ez da eskatuko honako kasu hauetan:

- a) 8.4 artikuluan jasotako aurreproiektu bateratua idazteko laguntza-eskaera denean.
- b) 8.6 artikuluan jasotako urbanizazioak eraberritzeko laguntza-eskaera denean.

3.- Ez da dirulaguntzarik emango, familia bakarreko edo familia birentzako etxebizitzetarako, ez eta etxe isolatu edo atxikietarako ere.

4.- Obrak irabazasmorik gabeko elkarte batek egiten dituenean, ez da beharrezkoa izango higiezinak bizitegi erabilera izatea.

4. ARTIKULUA. MUGIKORTASUN URRIKO PERTSONAK

70 urtetik gorako pertsonak edo oinez ibiltzeko, eskailerak igotzeko edo arkitektura-oztopoak gainditzeko mugikortasun urria duten pertsonak bizi diren eraikinetan (pertsona horiek protesiak edo gurpil-aulkiak behar ez badituzte ere) ez dira 3. artikuluko 1b), 1.c) eta 1.d) ataletako baldintzak bete behar. Hala ere, bizitegi-eraikinak izan behar dute beti, etxebizitza-erabilera bideratuak.

5. ARTIKULUA. ONURADUNAK: Nork eska dezakeen dirulaguntza

1.- Bizitegi-eraikinetako pertsona fisiko edo juridiko jabeek eta jabeen erkidegoek, edo, hala badagokio, obra horiek egin eta finantzatzen dituzten interesdunek, arkitektura-oztopoak kentzeko obretarako.

Modu berean, irabazasmorik gabeko elkarteek –erabilera publikokoak edo interes sozialekoak badira– dirulaguntza eskatu ahalko dute, baldin eta ez badaude araubide zehatz baten barruan, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen 1/2002 Lege Organikoan eta Euskadiko Elkarleen ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoaren arabera, eta baldin eta Bilboko Udalaren Herritarren Partaidetzako Entitateen Erregistroan edo EAEko Elkarleen Erregistroko Orokorrean izena emanda badaude.

Egoitza soziala ez badaukate Euskal Autonomia Erkidegoan, Elkarleen Erregistro Nazionalen inskribatuta egon beharko dira.

2.- Ezingo dira onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan ezarritako debekuren bat dutenek.

6. ARTIKULUA. ONURADUNAK: Betebeharrak

Dirulaguntzen onuradunek Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 14. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

Dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena eman aurretik, onuradunek egiaztatu beharko dute ez daukatela zerga-zorrik, eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-obligazioekin ere egunean daudela.

7. ARTIKULUA. AURREKONTU-ZUZKIDURA

1.- Deialdiko dirulaguntzak finantzatuko dira Bilboko Udalak 2023ko ekitaldirako onetsitako aurrekontuaren 41020 15220 78099 PEP 2023/00341 aurrekontu-partidaren kontura.

2.- Deialdi honetarako zenbatekoa **SEIEHUN MILA (600.000)** eurokoa da.

3.- Diru-kopuru hori amaitutakoan, ez da laguntza gehiago emango harik eta aurrekontuan beste diru-zuzkidura bat baimendu arte; Bilboko Udalaren webgunean argitaratuko da, hala gertatuz gero.

4.- Aurrekontu-zuzkidura handitu ahalko da, aurkeztutako eskabideak ikusita, deialdi berririk egin barik.

8. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN JARDUKETAK, ETA LAGUNTZA EKONOMIKOEN ZENBATEKOA

1.- Igogailua jartzea:

1.1 Jarduketaren helburua denean igogailua jartzea halakorik ez dagoen eraikinean, obraren benetako kostuaren % 10eko dirulaguntza izango da laguntza ekonomikoa, eta laguntza hori ez da itzuli beharko.

Laguntza hori hamabi mila **(12.000)** eurokoa izango da, gehienez ere.

Gehieneko muga hori aplikatuko da, halaber, igogailua jartzeko, ibilbidea zabaltzeko eta/edo oztopoak kentzeko zenbait esku-hartze batera egiten direnean, horiek aldi berean egin ala ez. Ondore horietarako, aintzat hartuko dira azken 10 urteetan egindako jarduketak.

1.2 Igogailua jartzeko ibilbide erabilgarri globala sortu behar denean, edo, igogailua jartzeko, eraikuntzaren lurra edo zatiak erosi edo horien desjabetzea egin behar izan denean, honelaxe kalkulatu da laguntzaren zenbatekoa, betiere hogeita mila (20.000) euroko kopurua gainditu barik:

- 120.000 euroko zenbatekora arte, % 10eko ehunekoa ezarriko da.
- kostuaren gainerako kopuruan, berriz, % 8ko ehunekoa ezarriko da.

Ondorio horietarako, ibilbide erabilgarri orokortzat hartuko da bide publikotik etxebizitza bakoitzera bitartean mailarik ez duen ibilbidea. Bitarteko mekanikoak erabili behar badira, ibilbide erabilgarri orokorra dela joko da plataforma jasotzailea badu. Aldiz, ez da halakotzat hartuko, baldin eta translazio zehar egiteko bitartekoak erabiltzen badira.

Laguntzaren zenbatekoa zehazteko, igogailua jartzearen kostua ez ezik, oztopoak kentzeko beste neurri batzuei dagokiena ere hartuko da kontuan, baldin eta esku-hartze berean aldi berean egiten badira.

2.- Igogailuaren ibilbidea luzatzea:

Jarduketaren helburua denean lehendik zegoen igogailuaren ibilbidea luzatzea, obraren benetako kostuaren % 10eko dirulaguntza izango da laguntza ekonomikoa, eta kopuru hori ez da itzuli beharko.

Laguntza hori zortzi mila eta laurehun (8.400) eurokoa izan ahalko da, gehienez ere.

Gehieneko muga hori aplikatuko da, halaber, igogailuaren ibilbidea luzatzeko eta oztopoak kentzeko zenbait esku-hartze batera egiten direnean, horiek aldi berean egin ala ez. Ondore horietarako, aintzat hartuko dira azken 10 urteotan egindako jarduketak.

3.- Arkitektura-oztopoak kentzeko beste esku-hartze batzuk:

Jarduketaren helburua denean arkitektura-oztopoak kentzeko beste jarduketa batzuk egitea (eskailera-igogailua jartzea, arrapala eraikitzea, dauden igogailuak berritzea -baldin eta irisgarritasuna hobetzen badute-, lehendik dauden igogailuetan geralekua berdintzea helburu duten jarduketak...), obraren benetako kostuaren % 10eko dirulaguntza izango da laguntza ekonomikoa, eta zenbateko hori ez da itzuli beharko.

Laguntza hori lau mila eta berrehun (4.200) eurokoa izango da gehienez, lanak aldi berean egin edo ez. Ondore horietarako, aintzat hartuko dira azken 10 urteotan egindako jarduketak.

4.- Aurreproiektua idaztea:

Jarduketaren helburua denean aurreproiektu bateratua egitea igogailua instalatuta irisgarritasuna hobetzeko (gaur egun, Etxebizitzaren irisgarritasuna sustatzeari buruzko Ordenantzaren 6. artikuluan aurreikusita dago, eta bat dator HAPOko arauekin), Udalak berak agiri hori eskatzen badu lizentzia izapidetzeko, eta, betiere, berau onetsi bada, laguntza ekonomikoa izango da agiri hori egiteagatik ordainsarien (BEZa barne) % 100eko dirulaguntza, eta zenbateko hori ez da itzuli beharko.

Laguntza hori mila eta zortziehun (1.800) eurokoa izango da, gehienez ere.

Dirulaguntza hori gainerako laguntzetatik independentea da, eta, beraz, kontzeptu horregatik diruz lagundutako kopurua ez da aintzat hartuko artikulua honetan aurreikusitako beste edozein laguntzaren gehieneko zenbatekoa kalkulatzekoan.

5.- Igogailua jartzea Otxarkoagako eremuan:

Otxarkoagako Irisgarritasuna Hobetzeko Plan Bereziko aplikazio-eremuan, igogailua jartzeko laguntza ekonomikoa obraren benetako kostuaren % 20ko dirulaguntza izango da, eta emandako zenbatekoa ez da itzuli beharko.

Laguntza horren gehieneko zenbatekoa hoge mila (20.000) eurokoa izango da; muga hori aplikatuko da, halaber, igogailua jartzeko, ibilbidea zabaltzeko eta/edo oztopoak kentzeko zenbait esku-hartze batera egiten direnean, horiek aldi berean egin ala ez. Ondore horietarako, aintzat hartuko dira azken 10 urteotan egindako jarduketak.

6.- Lehendik dauden urbanizazioak berritzea:

Jarduketa bizitegi-erakinen inguruetan lehendik zeuden erabilera publiko zein pribatuko eta titularitate pribatuko kanpoko urbanizazioak eraberritzeko obrak egitea denean, baldin eta obra horiek arkitektura-oztopoak kentzea badakarte, dirulaguntza izango da jarduketaren benetako kostuaren % 20, eta kopuru hori ez da itzuli beharko.

Laguntza hori sei mila (6.000) eurokoa izango da, gehienez ere.

Jarduketaren helburua bada igogailua jartzea halakorik ez dagoen eraikin batean, laguntza ekonomikoa izango da obraren benetako kostuaren % 10eko dirulaguntza, eta emandakoa ez da itzuli beharko.

Laguntza hori hogeita hamar mila (30.000) eurokoa izango da, gehienez ere.

Etxebizitzetara sartzeko eskailera bat baino gehiago dituzten eraikinetan, igogailu bat baino gehiago jartzeko edo arkitektura-oztopoak kentzeko obrak egiteko dirulaguntza jaso ahalko dute, baldin eta etxebizitza desberdinei zerbitzu ematen badiete eta artikulua honetan ezarritako mugekin —zeina modu individualizatuan aplikatuko baitzaio eskailera bakoitzari—.

7.- Irabazasmorik gabeko elkarteek euren jarduerak egiten dituzten higiezinetan arkitekturako oztopoak kentzeko obrak egitea.

Irabazasmorik gabeko elkarteek euren xede soziala eratzen duten jarduerak egiteko erabiltzen dituzten higiezinetan arkitekturako oztopoak kentzeko esku-hartzeak egiten dituztenean, laguntza ekonomikoa itzuli beharrik gabeko dirulaguntza bat izango da, jarduketaren benetako kostuaren % 100ekoa.

Laguntza horren zenbatekoa, gehienez, hamabost mila (**15.000**) eurokoa izango da.

9. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEN DIREN GASTUAK

Diruz lagun daitekeen gastutzat joko da jarduketaren benetako kostua, zeinak honako hauek hartuko baititu: obraren kostua, igogailuarena, jasogailuena, obrarako emandako laguntza teknikoagatiko ordainsariak, eta obra egin ahal izateko beharrezko ondasun edo eskubideak erosi edo desjabetzeagatiko prezioa.

Horrez gain, aintzat hartuko dira diruz lagun daitekeen jarduketagatik ordaindutako tasak, zergak eta bestelako prezio publikoak, eta balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa, baldin eta onuradunek berau jasan badute eta ezin badiete hirugarrenei jasanarazi.

Diruz lagundu daitekeen benetako kostua zehazteko, obren zuzendaritzak, hala eskatzen zaionean, ziurtagiri bat egingo du, arkitektura- edo hirigintza-oztopoak kentzeko edo igogailu berria jartzeko behar-beharrezkoak diren obren zenbatekoarekin.

10. ARTIKULUA.- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN OBREK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

1.- Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak jaso ahal izateko, obrek, hala badagokio, nahitaezko udal-lizentzia izan beharko dute, eta obra-lizentzian eskatutako obra-amaierako dokumentazioa aurkeztu beharko dute, hura aurkeztea eskatzen den kasuetan eta Udalaren adostasunarekin.

3.- Ezingo dituzte dirulaguntza hauek jaso ordainagiriak edo, ordainketa partzialen kasuan, amaierako likidazioak 2022ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoak dituzten obrak.

11. ARTIKULUA. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN

1.- Dirulaguntza hauek bateragarriak dira helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere horiek ematen dituen administrazioa edo erakunde publiko edo pribatua, nazionala, Europar Batasunekoa edo nazioartekoa izanda ere.

Nolanahi ere, esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du inolaz ere gainditu diruz lagundutako jardunaren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

2.- Hala ere, dirulaguntza hauek bateraezinak izango dira Udalaren beste programa batzuen kontura jasotako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera eta baliabideekin.

12. ARTIKULUA. ESKABIDEAK. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.- **AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK:** Laguntzak lortu nahi dituzten pertsona fisiko edo juridikoek obra amaitutakoan aurkeztu beharko dute eskabidea, eta honako agiri hauek erantsi beharko dituzte:

- a) **I. eranskina.** Erantzukizunpeko aitortpena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan onuradun izateko ezarritako debekurik ez izateari buruzkoa.

- b) **I. eranskina:** Udalari nork bere borondatez emandako baimena, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta edukitzeari buruzko datuak jasotzeko. I. eranskina.
- c) **II. eranskina. «Hartzekodunen fitxa».** Bakarrik aurkeztu beharko da baldin eta interesdunak lehenago Bilboko Udalaren inolako dirulaguntzarik jaso ez badu eta Hartzekodunen Erregistroan izena emanda ez badago. Eranskin hori behar bezala bete, eta honako hauek erantsi beharko zaizkio:
- a. bankuko kontuaren titulartasuna egiaztatzeko agiria.
 - b. pertsona juridikoen kasuan, ordezkariaren NANaren eta ahalordearen kopia.
- d) Ahalorde hori aurkeztu ezean, edo Udalak ezin badu berau eskuratu: **Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorretan ez egotea egiaztatzen duten agiriak**, administrazioek urte horretan egindakoak.
- e) **Diruz lagun daitekeen jarduketa egin izanaren justifikazioa.** Dirulaguntza eman aurretik aurkeztuko da, justifikazioko kontu moduan. Diruz lagundutako jardueraren eta onuradunen ezaugarrien arabera, justifikazioko kontuak honako hauek edukiko ditu:
- obra-amaieraren azken likidazioa, baldin eta obra motak hala eskatzen badu eta, betiere, likidazio hori Administrazio honetara lehenago aurkeztu ez bada.
 - obren, instalazioen, aparatuen eta ordainsari teknikoek fakturen jatorrizkoak.
 - Hala badagokio, igogailua jartzeko erositako edo desjabetutako lursail edo eraikin-zatiagatik ordaindutako prezioa egiaztatzen duen agiria.
- Agiri horiek kontzeptuka xehakaturik aurkeztu behar dira, halako moldez non berariaz geratuko den egiaztatuta dirulaguntzaren xede den aurrekontua.
- Jatorrizko dokumentuak, prozedura amaitu ondoren, interesdunari itzuliko zaizkio.
- f) Adinari buruzko egiaztagiria edo minusbaliotasun-ziurtagiria, 4. artikulua aplikatzea dagokionean.
- g) Eskailera zeiharrek jarrit gero edo obretarako baimenik/lizentziarik behar ez duten bestelako jarduketak eginez gero, egindako jardueraren argazkiak.
- h) Eskaera-egilea Udalaren Herritarren Partaidetzako Entitateen Erregistroan izena emanda ez dagoen irabazasmorik gabeko elkarte bat bada, ziurtagiri bat aurkeztuko du, EAEko Elkartearen Erregistroan edo Elkartearen Erregistro Nazionalean izena emanda dagoela frogatzeko.

Eskabidea behar bezala beteta ez badago, edo aipatutako datu edo agirietakoren bat falta bada, eskatzaileari errekerimendua egingo zaio, 10 egun balioduneko epean hutsak zuzen ditzan; eta ohartaraziko zaio hala egin ezean, eskabidea artxibatu egingo dela, bestelako izapiderik egin beharrik gabe.

13. ARTIKULUA. ESKABIDEAK. Aurkezteko modua eta epeak

1.- Eskaerak honela aurkeztu ahaliko dira:

- **EGOITZA ELEKTRONIKOAN**, Udalaren webgunearen bidez. (**Jabeen erkidegoen eta irabazasmorik gabeko elkartearen kasuan, erkidegoaren edo elkartearen IFK agertu behar da eskatzailearen IFK gisa**)
- **Udal bulegoetan, HITZORDUA ESKATUTA:**

- Hiri Plangintzako Saileko Erregistroa (San Agustin eraikina - Ernesto Erkoreka plaza 12).
- Barrutietako udaltegietako erregistroetan.

Halaber, eskabideak bidali ahalko dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 39/2915 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein sistemaren bidez.

2.- EPEA: Eskabideak aurkezteko epea hasiko da deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean, eta 2023ko azaroaren 13an amaituko da. Informazio hori Udalaren webgunean ere egongo da eskura (www.bilbao.eus/Obretako, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoetako Saila).

14. ARTIKULUA. IZAPIDETZEA ETA EBAZPENA

1.- Dirulaguntzen deialdi honetara bideratutako aurrekontu-kreditua banatuko da deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten pertsona edo entitateen artean, 8. artikuluan ezarritako laguntzen zenbatekoen arabera eta aurrekontu-zuzkidura agortu arte.

Dirulaguntza-eskaerak ebatziko dira beren aurkezte-dataren hurrenkeran.

2.- Deialdi honen barruan sartzen dira, halaber, deialdiaren aurretik aurkeztu eta oraindik ebatzi barik dauden eskabideak. Horien kasuan, ez da beharrezkoa izango eskabidea berriro egitea.

3.- Obretako, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoetako Sailaren Aurrekontu, Kontratazio eta Informatizazio Sekzioa izango da prozedura izapidetzeko organo eskuduna. Hark egingo du ebazpen-prozedura, honako hauek egiaztatu eta gero:

- Udal ikuskaritzak txostena egin duela, eta, bertan, adierazi duela diruz lagun daitezkeen obrak behar bezala egin direla.
- onuradunak Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren txostena aurkeztu duela.
- Onuraduna egunean dagoela zerga-betebeharrei eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-obligazioei dagokionez, eta ez duela zerga edo zehapenengatiko zorrik Udalarekin, epe exekutiboan (salbu eta horiek geroratuta edo zatikatuta badaude, edo beren exekuzioa geldiarazita bada).

4.- Gobernu Batzordeak edo hark eskuordetutakoak ebatziko du prozedurari buruz.

Ebazteko eta interesdunei jakinarazteko gehieneko epea lau hilabetekoa izango da, eskaera aurkezten denetik hasita, eta deialdiaren laburpena argitaratu eta gero.

Ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea igaro ondoren, eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela jo ahalko da.

Eskatutako dirulaguntza onesteko edo ezesteko ebazpenak administrazio-bidea amaituko du.

Ebazpenaren kontra, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da, ebazpena eman duen organoan, hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, administrazioarekiko auzien epaitegietan dagokionean, jakinarazpena egiten denetik bi hilabeteko epean.

5.- Izapidetzeko eta ebazteko egintzak jakinarazpen pertsonalaren bidez jakinaraziko dira.

15. ARTIKULUA. LAGUNTZA ORDAINTzea

Obretako, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoetako Saileko Ordezkaritzak esleitutako dirulaguntza ordaintzeko ebazpena emango du. Onuradunari ebazpen hori jakinaraziko zaio, eta Udal honetako Hartzekodunen Erregistroan haren izenean dagoen banku-kontuan ordainduko da.

16. ARTIKULUA. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA

Emandako dirulaguntza guztiak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean eta udalaren webgunean argitaratuko dira.

Bilbon, 2023ko urtarrilaren 26an.

Obretako, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoetako Saila.